

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2670

227/2013 EBAZPENA, apirilaren 17koa, Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentearena, Galdakao-Usansolo Ospitaleko Antolakuntza eta Informazio Sistemetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Antolakuntza eta Informazio Sistemetako zuzendariorde lanpostua hutsik dagoenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau orokorrean eta uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan xedatzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza honek. Horretarako hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez, Antolakuntza eta Informazio Sistemetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia egiten da, eta bertara honako hauek aurkez daitezke: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionarioak, estatutarioak nahiz lan-kontratuko langile finkoak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak eta baldintzak betetzen dituen beste edozein. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

- 1.– Titulazio akademikoa.– A1/A2 Lanbide-taldean aipatutako unibertsitateko edozein lizentziatura edukitzea.
- 2.– Hizkuntza-eskakizuna.– 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun datarik gabe.
- 3.– Esperientzia.– 5 urteko lan-esperientzia edukitzea A1/A2 Lanbide-taldeko berezko zereginetan.

Bigarrena.– Interesdunek Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara igorri beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute:

- Titulu akademikoa.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten esperientzia.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iriztitako beste edozein merezimendu. Bereziki baloratuko dira informazio-sistemen kudeaketari buruzkoak, Zuzendariorde-tza horren oinarria baita.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentearen ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2013ko apirilaren 17a.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentea,
JUAN ANTONIO GUAJARDO REMACHA.